

# 7

BOKADILOAK

BOCADILLOS

**U N I T A T E A**

## HELBURUA

Jan eta edanetan dauden aukerak jakinaraztea eta bezeroaren eskaera ulertzea.

## OBJETIVO

Informar sobre la variedad de comidas y bebidas y entender lo que quiere el cliente.

7.1. Elkarrizketa

7.2. Ariketak

7.3. Azalpenak

7.4. Hiztegia

7.5. Errepasoa

7.6. Badakizu?

7.7. Erantzunak

7.1. Diálogo

7.2. Ejercicios

7.3. Explicaciones

7.4. Diccionario

7.5. Repaso

7.6. ¿Sabías que...?


7.7. Soluciones

### 7.1. Elkarrizketa



Komiki honetako elkarrizketa CDan grabatuta izango duzu. Entzun eta ikasi.  
Audio-pasartea: CDaren 10. pista.

KOADRILA BAT PASEOAN IBILI DA ARRATSALDE OSOAN. ORAIN BERANDU DA ETA TABERNA BATEAN BOKADILO BATZUK AFALDU NAHI DITUZTE.



**Koadrilakoak:** Eup!

**Tabernaria:** Kaixo! Zer behar duzue?

**Koadrilakoa:** Bokadilorik badaukazue?


**Tabernaria:** Bai, hotzak eta beroak.

**Koadrilakoa:** Zer bokadilo dauzkazu?

**Tabernaria:** Hor daude, hormako kartelean: tortillak, solomoa, hirugiharra gaztarekin... Aukera handia dago.

**Koadrilakoa:** Ea, itxaron pixka batean.

**Tabernaria:** Bai, lasai aukeratu eta esan.



**Tabernaria:** Aukeratu al duzue?

**Koadrilakoa:** Bai, ea ba, bat zainzuri-tortillarena, bat solomoarena eta beste bi urdaiazpikoarenak. Eta

umeentzat bat patata-tortillarena, erdibituta.

**Tabernaria:** Edateko?

**Koadrilakoa:** Botila bat sagardo eta bi botila ur.


**Tabernaria:** Oso ondo, segituan ekarriko dizkizuet.

## 7.1. Diálogo



El diálogo de estas viñetas lo tienes grabado en el CD. Escucha y apréndelo.  
Audio: Pista 10 CD.

UNA CUADRILLA HA ESTADO PASEANDO DURANTE TODA LA TARDE. AHORA SE HA HECHO TARDE Y QUIEREN CENAR UNOS BOCADILLOS EN UN BAR.



**Los de la cuadrilla:** Eup!

**Camarero:** ¡Hola!

¿Qué queréis?

**Alguien de la cuadrilla:**

¿Tenéis bocadillos?


**Camarero:** Sí, fríos y calientes.

**Alguien de la cuadrilla:** ¿De qué tenéis?

**Camarero:** Están ahí, en el cartel de la pared: tortillas, lomo, beicon con queso... Hay gran variedad.

**Alguien de la cuadrilla:** A ver, espera un momento.

**Camarero:** Sí, tranquila, elegid y ya me diréis.



**Camarero:** ¿Habéis elegido?

**Alguien de la cuadrilla:**

Sí, a ver, uno de tortilla de espárragos, uno de lomo y otros dos de jamón. Y para

los niños uno de tortilla de patatas, partido por la mitad.

**Camarero:** ¿Para beber?

**Alguien de la cuadrilla:** Una botella de sidra y dos botellas de agua.

**Camarero:** Muy bien, enseguida.


7.2. Ariketak • Ejercicios

1. Ariketa

Lotu argazkiak eta hitzak.

Une las fotos y las palabras.

- 1 GAZTA
- 2 HIRUGIHARRA
- 3 SOLOMOA
- 4 ZAINZURIA
- 5 TORTILLA
- 6 URDAIAZPIKOA
- 7 SAGARDOA



2. Ariketa

Jar itzazu euskaraz hurrengo esaldiak.

Pon en euskera las siguientes frases.

- 1. ¿Tenéis bocadillos? .....
- 2. Espera un poco. ....
- 3. Dos botellas de sidra. ....
- 4. Bocado de jamón. ....

3. Ariketa



Elkarrizketa CDan entzuten duzun bitartean, marka itzazu gurutze batez koadrila honek eskatzen dituen gauzak.

Mientras escuchas el diálogo en el CD, marca con una cruz lo que pide esta cuadrilla.

Audio-pasartea: CDaren 10. pista/Audio: Pista 10 CD.

- Patata-tortilla bokadiloa.
- Freskagarriak.
- Ura.
- Urdaiazpiko-bokadiloak.
- Sagardoa.
- Ebakia.
- Solomo-bokadiloa.
- Hirugihar-bokadiloa.
- Zainzuri-tortilla bokadiloa.

4. Ariketa

Lotu galderak eta erantzunak.

Une las preguntas y las respuestas.

- 1. Zer bokadilo da? a. Ez, beroa dago.
- 2. Patata-tortilla bokadilorik badaukazue? b. Bai, badaukagu.
- 3. Zer behar duzue edateko? c. Edateko ura behar dugu.
- 4. Tortilla hotza badago? d. Txorizo-tortilla bokadiloa da.

## 7.2. Ariketak • Ejercicios

### 5. Ariketa

Lotu euskaraz eta erdaraz esanahi bera duten hitzak.


Une las palabras que tienen el mismo significado en euskera y en castellano.

- |          |          |
|----------|----------|
| GAZTA    | CALIENTE |
| XERRA    | QUESO    |
| PIPERRA  | LOMO     |
| OGIA     | FILETE   |
| BEJETALA | FRIO     |
| SOLOMOA  | PIMIENTO |
| HOTZA    | PAN      |
| BEROA    | VEGETAL  |

### 6. Ariketa

Aurkitu letra-zopa honetan marrazkietako gauzen izenak.

Encuentra los nombres de las cosas de los dibujos en esta sopa de letras.



### 7. Ariketa

Itzuli kartel hau.

Traduce este cartel.

#### BOCADILLOS

##### FRIOS

- Jamón
- Vegetal
- York y queso
- Atún

#### BOCADILLOS

##### CALIENTES

- Jamón y queso
- Tortilla de chorizo
- Tortilla de jamón
- Tortilla de espárragos
- Beicon y queso
- Lomo y pimientos

.....	.....
.....	.....
.....	.....
.....	.....
.....	.....
.....	.....
.....	.....
.....	.....
.....	.....
.....	.....

### 7.3. Azalpenak

#### A. Bokadiloak

Bokadiloak, pintxoak, etab. eskatzeko era ezberdinak daude. Hemen bi ikusiko ditugu.

- a. Zer nahi duzu?  
Bokadilo bat urdaiazpiko(arena).  
Bi pintxo solomo(arenak).

**Egitura:** BOKADILO BAT + OSAGAIA + (ARENA(k))  
Bokadilo bat + urdaiazpikoa + arena  
Bokadilo bat urdaiazpikoarena.

- b. Zer nahi duzu?  
Urdaiazpiko-bokadiloa.

**Egitura:** OSAGAIA + BOKADILOA  
Urdaiazpiko + bokadiloa

#### B. Tortillak

"Tortilla de patatas", "tortilla de chorizo", nola eskatuko ditugu euskeraz? Honela esango dugu:

**Egitura:** OSAGAIA + TORTILLA  
Patata + tortilla = patata-tortilla  
Txorizo + tortilla = txorizo-tortilla

#### C. Botila bat ur /Ur botila bat

Nola eskatu behar dugu "una botella de agua"? Bada, oso erraza da, ordenarekin kontu pixka bat edukiz gero. Begira:

**Egitura:** BOTILA BAT UR ..... Una botella de agua  
ONTZIA + EDARIA

#### C. Kontuz ordenarekin!

Oraingo honetan, otorduak euskaraz esaten ikasiko duzu:

Goizean ..... gosaria  
Eguerdian ..... bazkaria  
Arratsaldean .. merienda/askaria  
Gauean ..... afaria

Batzuetan, goizerdian beste otordu bat egiten dugu: hamaiketakoa.

## 7.3. Explicaciones

### A. Bocadillos

Hay diferentes maneras de pedir los bocadillos, pinchos, etc. Aquí aprenderemos dos.

- a. ¿Qué quieres?  
Un bocadillo de jamón.  
Dos pinchos de lomo.

**Estructura:** UN BOCADILLO + INGREDIENTE + (ARENA(K))  
Bokadilo bat + urdaiazpiko + arena

**Bokadilo bat urdaiazpiko(arena)** = Un bocadillo de jamón  
Bi pintxo solomo(arenak)

- b. ¿Qué quieres?  
Un bocadillo de jamón.

**Estructura:** INGREDIENTE + BOCADILLO  
Urdaiazpiko + bokadiloa

**Urdaiazpiko-bokadiloa** = Bocadillo de jamón

### B. Las tortillas

¿Cómo pediremos tortilla de patatas o tortilla de chorizo en euskera?  
Lo haremos así:

<b>Estructura:</b>	INGREDIENTE	+ TORTILLA
	Patata	+ tortilla = <b>patata-tortilla</b> Tortilla de patatas
	Txorizo	+ tortilla = <b>txorizo-tortilla</b> Tortilla de chorizo

### C. Una botella de agua

¿Cómo pediremos "una botella de agua"? Es muy fácil, siempre y cuando tengamos un poco de cuidado con el orden.

**Estructura:** BOTILA BAT UR ..... Una botella de agua  
RECIPIENTE + BEBIDA/LÍQUIDO

### C. Las comidas

Ahora aprenderás a decir las comidas en euskera:

- Por la mañana ..... gosaria (desayuno)  
Al mediodía ..... bazkaria (comida)  
Por la tarde ..... merienda/askaria (merienda)  
Por la noche ..... afaria (cena)

A veces, a media mañana, hacemos otra comida: hamaiketako (almuerzo)

## 7.4. Hiztegia

## Diccionario

### ADITZAK

Afaldu  
Aukeratu  
Berotu  
Edan  
Egon  
Ekarri  
Erdibitu  
Esan  
Ibili  
Itxaron  
Moztu

### VERBOS

Cenar  
Elegir  
Calentar  
Beber  
Estar  
Traer  
Dividir por la mitad  
Decir  
Andar  
Esperar  
Cortar

### JANARIAK ETA EDARIAK

Arrautz  
Atun  
Begetala  
Bokadilo; Otarteko  
Botila bat ur  
Freskagarri  
Ganba  
Gatz  
Gazta  
Hirugihar  
Kaxuela  
Maionesa  
Moldeko ogi  
Ogi  
Patata  
Petxuga  
Pintxo  
Piper berde  
Piper gorri  
Piper  
Razio  
Sagardo  
Solomo  
Tomate  
Tortilla

### COMIDAS Y BEBIDAS

Huevo  
Atún  
Vegetal  
Bocadillo  
Botella de agua  
Refresco  
Gamba  
Sal  
Queso  
Beicon  
Cazuela  
Mahonesa  
Pan de molde  
Pan  
Patata  
Pechuga  
Banderilla; Pincho  
Pimiento verde  
Pimiento rojo  
Pimiento  
Ración  
Sidra  
Lomo  
Tomate  
Tortilla

diccio

## 7.4. Hiztegia

Txigortu; Tostatu  
Txibi  
Txistor  
Urdaiazpiko gozo  
Urdaiazpiko  
Xerra  
Zainzuri

**BESTERIK**

Afari  
Arratsalde  
Badaukagu  
Badaukazu  
Badaukazue  
Bero  
Daude  
Edalontzi  
Eguerdi  
Erdibituta  
Gau  
Goiz  
Gosari  
Gutxi eginda  
Hamaiketako  
Hotz  
Kartel  
Lasai  
Ondo eginda  
Ontzi  
Osagai  
Otordu  
Plater  
Segituan  
Serbiletta

## Diccionario

Tostado  
Calamar  
Chistorra  
Jamón York  
Jamón  
Filete  
Espárrago

**OTROS**

Cena  
Tarde  
Ya tenemos  
Ya tienes  
Ya tenéis  
Caliente  
Están  
Vaso  
Mediodía  
Partido por la mitad  
Noche  
Mañana  
Desayuno  
Poco hecho  
Almuerzo  
Frío  
Cartel  
Tranquilo  
Bien hecho  
Recipiente  
Ingrediente  
Comida (en general)  
Plato  
Enseguida  
Servilleta

7.5. Errepasoa • Repaso

A. Sartu gauza bakoitza dagokion koadroan.


Introduce cada cosa en el cuadro que le corresponde.



urdaiazpikoa/sagardoa/txistorra/txakolina/ardoa/gazta/ura/patata-tortilla/  
piper gorriak/freskagarria/solomoa/xerrak/garagardoa/kalimotxoa/ganba-tortilla

B. Lotu irudiak esaldien arabera.


Une las imágenes de acuerdo a las frases.




Imanolek sagardoa nahi du




Jonek gazta eta urdaiazpikoa nahi ditu



Umeek txistor-bokadiloak nahi dituzte



Amaiak bejetala nahi du



1



2



3



4

C. Jarri erloju bakoitzaren ondoan zein otordu tokatzen den.

Pon al lado de cada reloj qué comida toca a esa hora.

11:00.....

13:30.....

17:00.....

21:00.....

08:00.....


## 7.6. Badakizu? • ¿Sabías qué...?

Oso gustura gabiltza, baina berandutu egin zaigu. Afaltzeko ordua da eta oraindik kalean gaude. Zer egin dezakegu? Bada, bokadilo batzuk jango ditugu nonbaiten! Zenbat aldiz entzun edo esan dugu esaldi hori? Izan ere, zaila izango da hemen adina bokadilo (eta hain onak!) jaten diren herririk aurkitzea.

Herriko festetan ere errazago aurkituko dugu afaltzeko mahai bat koadrila osorako bokadiloak emango dizkigun taberna baino, gehienak ailegatu ezinik ibiltzen baitira.

Janari azkarra da, tokatuz gero zutik egiteko modukoa, aurretik antolatu beharrik gabe egin daitekeen lagun arteko afaria edo bazkaria. Gainera, osagaiei dagokienez, gustu guztiak asetzeko modukoa da.

Norbaitek esan dezake horrelakoetan beste aukera batzuk ere badaudela, azken urteotan ugaritu diren pizza edo hanburgesak, esate baterako. Baina ez dira berdinak; edo, zuk zer egingo zenuke urdaiazpiko-tortilla bokadiloa eta auskalo zerez egina dagoen hanburgesa ziztrin bat aukeran jarriko balizkizute?



Andamos a gusto, pero se nos ha hecho tarde. Es la hora de cenar y todavía andamos en la calle. ¿Qué podemos hacer?

¡Comeremos unos bocadillos por ahí! ¿Cuántas veces has escuchado o dicho esta frase? Será difícil encontrar un pueblo dónde se coman tantos bocadillos como aquí (¡y tan buenos!).

También en las fiestas de pueblo nos será mas fácil encontrar una mesa para cenar que una taberna que nos prepare bocadillos para toda la cuadrilla, pues suelen andar todas sin dar abasto.

Es una comida rápida, que se puede hacer de pie si es necesario, una comida entre amigos que no requiere organizarse de antemano. Además, en lo que respecta a los ingredientes, puede satisfacer todos los gustos. Alguien puede decir que para estas ocasiones hay otras opciones, como por ejemplo la pizza o hamburguesas que se han extendido en estos últimos años. Pero no es lo mismo; o ¿tú qué harías si te pusiesen a elegir un bocadillo de tortilla de jamón o una hamburguesa que no se sabe de qué está hecha?

## 7.7. Erantzunak • Soluciones

### 1

1. (pág. 96. or.)

- 1-a / 2-e / 3-f
- 4-c / 5-d / 6-g / 7-b

### 2

2. (pág. 96. or.)

1. Bokadilorik badaukazue?
2. Itxaron pixka batean.
3. Bi botila sagardo.
4. Urdaiazpiko-bokadiloa.

### 3

3. (pág. 96. or.)

- Patata-tortilla bokadiloa
- Ura
- Urdaiazpiko-bokadiloak
- Sagardoa
- Esparrago-tortilla bokadiloa
- Solomo-bokadiloa

### 4

4. (pág. 96. or.)

- 1-d / 2-b / 3-c / 4-a

### 5

5. (pág. 97. or.)

- Gazta/queso
- Xerra/filete
- Piperra/pimiento
- Ogia/pan
- Bejetala/vegetal
- Solomoa/lomo
- Hotza/frío
- Beroa/caliente

### 6

6. (pág. 97. or.)

T	E	D	A	N	A	D	I	S	K	D
T	T	R	T	I	L	A	X	E	S	I
E	S	X	P	A	R	R	A	T	F	B
F	B	D	I	R	E	A	O	K	E	O
A	O	T	I	S	E	R	U	A	L	E
I	T	K	A	F	T	A	I	L	O	U
E	I	L	E	I	B	O	L	A	M	A
B	L	A	L	A	T	A	R	M	A	R
T	A	A	F	N	S	A	T	A	R	E
L	E	T	X	U	G	A	R	R	E	I
H	I	R	U	G	I	H	A	E	A	T

1. Botilla
2. Kalamar
3. Tortilla
4. Txistorra

### 7

7. (pág. 97. or.)

#### BOKADILO HOTZAK

- URDAIAZPIKOA
- BEJETALA
- YORK ETA GAZTA
- ATUNA

#### BOKADILO BEROAK

- URDAIAZPIKOA ETA GAZTA
- TXORIZO-TORTILLA
- URDAIAZPIKO-TORTILLA
- ESPARRAGO-TORTILLA
- HIRUGIARRA ETA GAZTA
- SOLOMOA ETA PIPERRAK

## ERREPASOA:

A. (pág. 102. or.)

**EDARIAK:** sagardoa, txakolina, ardoa, ura, freskagarria, garagardoa, kalimotxoa

**JANARIAK:** urdaiazpikoa, txistorra, gazta, patata-tortilla, piper gorriak, solomoa, xerrak, ganba-tortilla

B. (pág. 102. or.)

Imanol/2, Jon/4, Umeak/1, Amaia/3

C. (pág. 102. or.)

11:00/hamaietakoa, 17:00/merienda, 8:00/gosaria, 13:30/bazkaria, 21:00/afaria